

GIPUZKOAKO MENDIEI BURUZKO ISTORIO LABUR BAT

**HERNANIKO HERRIALDEAN
MENDIEN GAUR EGUNGO
EGOERA. AZKEN URTEETAKO
LANDAKETA ETA BASOEN
ALDAKETAK.**

Bixente Dorronsoro Mintegui

*Gipuzkoako Foru Aldundiaren
Basozaintza Zerbitzuko Teknikaria.*

BEGIRADA OROKOR BAT. X. MENDETIK ORAIN ARTE

Garai hartako idatzi eta dokumentuetatik jakin dugunaren arabera, Gipuzkoako lurralde honetan X. mendiaz geroztik basoen egoera txartzen hasi zela dakigu. Hori horrela izatea, une haietan suertatu zen populazio handitzeak ekarri omen zuen, eguneroko ogia izateko belaze, zein labrantzako lurren ugaritasuna sortu beharra izan zutelarik.





Honek ekarri zuen berarekin batera, ordura arte baso itxi eta ia-ia herri erdiraino iristen zirenak, mendirantz gero eta gehiago urruntzea bate-tik eta, bestetik, gelditzen zirenak ere, su-egurra zela, inurkinak zirela, abereentzat ezkur eta fruituak, eta abar zirela, egunetik egunera gizonek behar zuten tamainan, ustiaketak ugarituz beren egoera txartzea.

Hori horrela izan arren, lurralde honetan, basoen ustiaketa arrazional bat egokitzea eta basoen ugaritasuna sortarazteko grina agertzen da, Foruan oinarriturik ematen diren lege edo ordenantzetan.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako basoen beharakada nabarmena, XV. mendean hasi zen, ondoren XVI-XVII eta XVIII. mendeetan, armadarentzat itsas untziak egiteko sortu ziren beharrak ezin osatuz. Baita ere, mende horietan hasi eta XIX. eraino, bertan burdina eta altzairua egiteko sortu ziren olak egur ikatzarekin mantentzen zirenez gero, basoen ustiaketek arrazionaltasun guztia galdu zuten eta besterik gabe, egurra moztu eta berarengandik sortutako ikatza garraiatzera mugatu zen baso ustiaketaren kontzeptu zabal hori.

Egoera larri honi gehigarri batzuk eransten badizkiogu, alegia, gero eta abere kopuru handiagoa sortzea, nonahi eta nolanahi, mugarik gabe eta edozer larratzeko "eskubidearekin"; ikuilueta-

ko abereen azpiak egiteko behar zan iñurkiña (basoari eta lurrari ongarria eta babesak kenduz); populazioaren gero eta ugaritze handiagoa, labrantzako lurrak eta larre lurrak ugarituz (basoari kenduz noski); "Desamortizazioa", hau da, udalek eta beste jabetza publikoko edo pribatukoek (Eliza, e. a.), beren lurrak nolanahi partikularrei saltzeko aukera ematen zuen legedia (gehienak oso merke saldu ziren, ze ordura arte zegoen legediaren arabera, gizaldietan saltzerik ez zuten izan eta kolpean gehiegi jarri zirenez salmentan salneurria asko jeitsi zen, jabe berriak zuhaitzak moztu eta ordaindutakoa baino gehiago jasotzen zutelarik, ondoren larre toki edo labrantza lurrak gelditzen zitzaizkielarik); abereek larrean jaten ez zutena, ondoren abeltzainak sua erabiliz sortzen zituzten kalteak eta, azkenik, bai gaztainak eta bai haritzak, XIX eta XX. mendeetan izan dituzten gaixotasunak (milaka zuhaitz moztu beharra izan zelarik) adibide gisa azalduta, samurra izango zaio edonori, gizaldi honen hasieran Gipuzkoako mendiak ia-ia soilik zeudela sinistea, eta ez hori bakarrik, zeuden baso gehienak etorkizun gutxiarekin, hain gaizki usiatuak baitzeuden.

Era honetan, XX. mendera iristen gara, eta bezperetan, hau da 1.898ko urtean, D. Ramón Adán de Yarzak, injinerua eta diotenez, gizon jakintsua gainera, zera azaldu zuen, alegia, Gipuzkoan nabarmen zirela baso eskaxiaren gaiztak, eta batik bat, uholdeak sarritu egin zirela, lur

galtze handiak berekin zirelarik, euri gutxitzeak, iturri agortzeak eta baita ere, orokorrean, ezeta-suna gutxitzea.

Kontseilu hauek gogoan izanik, Foru Aldundiak 1.902. urtean Antonio Ganuza izeneko Mendietako Injineruari eskatu zion Lurralde honetako basoen txosten bat, eta batik bat, Udalen edo Estatuaren jabegokoak ziren "Herri Onurako" edo "Montes de Utilidad Pública" deitzen diren horiei buruzkoa. Txosten horrek azaltzen zuenaren arabera, Herri Onurako mendiak, gutxi gora-behera, beren azaleraren %80 an soilik egongo ziren, eta gelditzen ziren zuhaitzi gehienak, edo zepatik sortutako txarakariak ziren edo lepatutakoekin (trasmotxoak) osatzen zirenak zeuden.

Aurrerago jarraitu baino lehen, uste dut beharrezkoa dela Herri Onurako mendia izatea zertan datzan aipatzea, eta bi hitzetan esateko, berezitasun aipagarrienak hauek dira:

- Herri Onurako edo Utilidad Pública izendatzen dira, gizartearentzat orokorrean eta, bere inguruko populazioarentzat bereziki, beren biziarentzat garrantzizkoak direlako, bai ateratzen zaien etekinagatik, ematen duten babesagatik, sortzen duten klimarengatik e.a.
- Mendi horiek ezin dira saldu, ez eta hipotekatu ere, bere jabeak horrela nahi izan arren, era horretan eta, geroari begira, ondasuna ez dadin galdu.
- Kudeaketa eta administrazioa Basozaintza Zerbitzuari dagokio.
- Herri Onurakoa den beste ekintza batengatik ez bada, ezin zaio inolako kargarik ezarri mendi hoiei.

Egoera horretan, eta gaur egun bezelaxe, diru arazoak tarte zirelarik, 1.902.urte hartan sortu zan ofizialki Diputazioko Zerbitzu Forestala, 1.905-6. urteraino benetan "operatiboa" izan ez bazen ere. Era guztietara ere, 1.901. urtetik aurrera jadanik hasia zan Diputazioa mintegiak sortu eta partikularrei, zein Udalei landareak dohain ematen, era horretan, bai jabego publikokoek zein pribatuek, baso lurren landaketa lanei ekin ziezaieten. Esan daiteke gaur egungo Basozaintza Zerbitzuak ematen dituen diru laguntzen antzekoa zela, garai bakoitzak lortu nahi dituen emaitzak, erabat ezberdinak izan arren.

Ondoren eta 1. Europako Gerra zela medio, 1.918ko urtean egurraren balioak gorakada izugarria izan omen zuen, bazter guztietan zeuden basoak ia-ia ondotik moztu zituztelarik, ondoren, mendi soilak baso bihurtuko baziren, landaketa lanei gogor ekin beharrean gertatu zirelarik.

Garai hartan landatutako zenbait zuhaitzi huanadatxo badira oraindik herri sailetan, behintzat. Nabarmenenak, abeto gorria (*Picea excelsa*), pinu gorria (*Pinus sylvestris*) eta pinu beltzarekin (*Pinus nigra*) osatuta daude, Erretereri, Gatzaga, Amezketan e.a.-etan.

Mende honen hasiera bitarteko historiaren laburpena bukatzeko, zera aipatu nahi nuke, Foru Aldundiaren Zerbitzu Forestalaren hasieratik, hau da 1.902-6 urtetik, 1.918 urteraino bakarrik, eta garai hartako muga guztiak gogoan izanik, Gipuzkoako Herri Onurako mendietan soilik, zeuden 1.818 ha landatuak izan zirela. Gogoan izan behar da, izendapen horrekin zentsatuak ziren mendi guztien azalera 31.415 ha.-koa zela, beraz, %5,79 landatu zen urte horietan. Hernaniko Udalarik dagokionez 62,3785 ha landatu ziren, hau da, guztira dituen 530,7300 ha.-tatik, %11,75a.

Azkenik, aipagarria iruditzen zait landaketa horien gehiengoa hosto zabala duten landareekin egiten zela esatea, batik bat lehen aipaturiko su-



egur, iñurkiñ, ikatz, gaztain eta beste fruituak oso beharrezkoak zirelako mende honen hasierako Gipuzkoako populazioarentzat. Gertatzen dena zera da, lehen aipaturiko izei, pinu eta abar horiek, nabarmenak direla mendian, pago eta haritzak, al-diz, bertara iritsi arte, landatutakoak diren edo ez jakiten ez baldin bada ere.

GIPUZKOAKO HERRI ONURAKO MENDIEN KUDEAKETAREN EBOLUZIOA

Aipatu bezela, H.O.ko mendi kudeaketa Diputazioak sortu zuen Zerbitzu Forestalaren esku izan zen bere sorreraz geroztik. Ondoren, eta Espainiako gerraren ostean, Foruak kendu zizkigutenean, Estatuak, "Distrito Forestal" izena zuen entitate baten bidez hartu zuen bere gain ardura hau, 1.971ko urtean "ICONA" sortu eta berari itsatsi arte.

1.980ko urtea iritsi arte, kudeaketa ardura hori ez zen Euskadira berriro itzuli, eta 1.985a arte, L.H.L. edo L.T.H.ren bitartez, bere jatorrizko Foru Aldundira, gaur egungo Nekazaritza eta Ingurugiro departamentuaren, Baso eta Izadi Zaintzako Zuzendaritzaren "Basozaintza Zerbitzura".

Hori dena horrela izanik, pasa den denbora honi, nere ikuspegitik jar lekiokkeen akats nagusienaz zera da, Udalak miserian egon arren, Gobernuak bere "Distritoari" dirurik ez, edo oso diru gu-

txi ematen ziola Gipuzkoako mendiek behar zituzten hobekuntzak burutzeko, baina ezin daiteke uka, urte haietan ere, Udalekin batera eta posible izan zuten tamainan, ardura izan zuten Teknikariak bai landaketa, zein hain garrantzizkoa den mendietako "Deslinde eta Mugarritze", eta nola ez, gero askototan baserrietako bide suertatu diren balsa bideak egite lanetan kementsu jokatu zutela.

Orain arte aipatu ez badugu ere, 1.940-1 urteetan sortu zen Estatu mailan, "Patrimonio Forestal del Estado" deitzen zen entitate bat, 1.971ko urtean ICONA sortu zen arte "Distrito Forestalarekin" batera izan zena. Entitate hori sortu zuten gerra ondoren ekonomia arlo guztiei bul-tzada bat eman nahian eta, batik bat, Espainiako mendi egoera zein kaskarra zen ikusi ondoren, lurak zuhaitzez estaltze asmoz batetik, ekintza horrek berak sortzen dituen hainbat mota ezberdinetako abantailak eskuratzeko bestetik, eta nola ez, sasia eta zakarra besterik ez zen lekuetan, biharko aberastasun bat sortu asmoz ere bai. Horretarako, Udalek zein partikularrek, lur soila jartzan zuten eta "Patrimonioa" jabetzen zen landaketa, zaintze e.a.-ekin, sortzen ziren gastu guztiak bere gain harturik eta segun eta zer motakin landatzen zen, %45 edo %55 jasoz etorriko ziren etekinetatik.

Ondorengo kuadro honetan, mende honen hasieratik honantz, Herri Onurakoak diren mendi zuhaitzutako, zein erabateko azaleraren aldaketa nagusienak laburtu nahi izan dira. Aldi berean, kudeaketaren ardura nork izan duen ere azaltzen da.

URTEA	AZALERA	ZUHAIZTUA	%	HUTSA	%	OHARRAK
1.902*	31.415	6.283	20	25.132	80	ALDUNDIA
1.918*	31.415	8.101	26	23.314	74	ALDUNDIA
1.936-40*	31.415	10.200	33	21.215	67	ALDUNDIA
1.980**	27.687	14.370	52	13.317	48	D.F.P.F-ICONA
1.994***	33.033	22.132	67	10.901	23	ALDUNDIA

* Mende honen hasieran egindako estimazioetan oinarriturik baina zenbait mendiri zuen baino azalera publiko gehiago ezarri, adibidez, Berastegik 365 ha. ditu eta 2.000 ha-z azaltzen zen.

** Urte guzti horietan, Herri Onurako mendiak benetan izan duten azalera.

*** Kudeaketa, 1985eko urtea arte Jaurilaritzaren esku izan zen.

*** Azken urteetan Foru Aldundiak egindako orosketen endorior osatzen den azalera.

Gaur egun HUTSA bezala azaltzen denaren %90a gutxienez mendiko larre lurak dira.

Azalpen honen amaiera gisa esan daiteke, lehen aipaturiko hori Herri Onurako mendietan gertatzen baldin bazen, are gehiago gertatzen zela partikularretan, ze, noski, herri sailak baino gertuagokoak dira beti norberarenak, eta ulergarria da, lur sail haiek urrunekoak baino ustiatugoak izango zirela pentsatzea.

Bestalde, aipagarria da Herri Onurako zein partikularren mendietan, landaketa lanen gorakada nabarmenena 50-60ko hamarkadetan izan zela, batzuetan hartarako entitate bereziak sortu zirelako eta, besteetan, aldiz, industriaren gorakadarekin batera, baserrien beherakada etorri zenez, belaze, garadi eta labrantzako ziren lur asko zuhaitzez landatu zituztelako.

ORAIN ARTE EGINDAKO BASO INBENTARIOEN EMAITZEN AZALPENA

Azken urteetako teknikari esker, eta fidagarritasun handiz egin diren baso inbentarioak, 1.971. urtekoa eta 1.985-6. urtean egindakoak dira, bata ICONAK burututakoa eta bestea, aldiz, Jauralaritzak eta Foru Diputazioek egin zutena.

Ahalik eta laburren, eta koadro batzuei esker, azalduko ditut batak zein besteak agertzen dituzten emaitza nabariak.

Ondorengo koadro honetan, baso lurren azalerak, horietatik, zuhaitzuta dauden kopuruak, eta hauen barne, konifero, hosto zabal edo misto-az jantzirik daudenak azaltzen dira.



	BASO LURRAK	ZUHAIZTUA	KONIFEROAK	HOSTO ZABALAK	MISTOAK	GUZTIRA
1.971ko B.I.	%77,10*	%59,50	73.581 ha	33.749 ha	11.520 ha	118.850
1.986ko B.I.	%71,25*	%60,24	83.986 ha	34.109 ha	743 ha	118.838

* Datu erabat berdinekin landuak ez daudenez, gutxi gora beherako emaitzak dira.

Aurreko datu horien garrantzia gutxitu gabe, orokorrean jendearen jakin mina betetzen duen koadroa osatuko da ondoren, alegia, zehatz-mehatz zein zuhaitz mota dauden nagusiki Gipuzkoan.

KONIFEROAK

MOETA	1.971ko Baso Inbentarioa		1.986ko Baso Inbentario	
	AZALERA	%	AZALERA	%
P. larizioa	2.770 ha.	2,33	4.244 ha.	3,57
P. Insignisa	59.027 ha.	49,67	67.144 ha.	56,5
Alertzea	4.872 ha.	4,1	9.191 ha.	7,73
Douglas Izeia	–	–	1.424 ha.	1,2
Bestelakok	6.912 ha.	5,82	1.983 ha.	1,67
GUZTIRA	73.581 ha.	61,91	83.986 ha	70,67

HOSTO ZABALAK

MOTA	1.971ko Baso Inbentarioa		1.986ko Baso Inbentario	
	AZALERA	%	AZALERA	%
Haritza	2.721 ha	2,29	2.549 ha	2,14
Pagoa	11.534 ha	9,70	16.699 ha	14,05
Pago* Haritza	–	–	4.326 ha	3,64
Norte Haritza	–	–	1.058 ha	0,89
Artea	–	–	1.691 ha	1,42
Besteak/Nahasketak	19.494 ha	16,40	7.786 ha	6,55
GUZTIRA	33.749 ha	28,40	34.109 ha	28,7

Aipatu beharrekoa da, azaltzen diren %-koak, zuhaitzutako azaleraren arabera kalkulatu direla eta ez baso-lur guztiarekin.


Inbentarioen datuak berriro erabiliko baditu-gu ere, zati hau bukatzeko esan nahi dut 1.996ko urte honen amaierarako espero dela hirugarren baso inbentarioa eskuetan izatea, hark azalduko dituen berriak jakiteko zain jarririk gaudelarik.

dira eta beste batzuk Foru Aldundiarenak, Baso-zaintza Zerbitzuari dagokiolarik denen kudeaketa eta administratze ardura, lehen eta gaur egungo araudiek diotenez.

HERNANIKO HERRIAN, HERRI ONURAKO MENDIEN AZKEN URTEETAKO EBOLUZIOA

Hernaniko herriaren muga barrenean badaude hainbat mendi H.O.-koak izendatuta daudenak. Ondoren ikusiko dugun bezala, batzuk Udalarenak

MENDIAREN IZENA	JABETZA	AZALERA
USOKO-EPELERREKA	Udala	277, 06 ha
ETZALA	Diputazioa	144, 20 ha
APARRAIN	Udala	116, 04 ha
KARTOLA	Udala	105, 53 ha
URDABURU	Diputazioa	84,85 ha
SANTA BARBARA	Udala	20,30 ha
EREÑOZU BURUA	Udala	11,80 ha
GUZTIRA UDALA	5	530, 73 ha
GUZTIRA DIPUTAZIOA	2	229,05 ha



Herri Onurako Udalaren mendietan, baso mota aldaketa galanta suertatu da azken hamar urteetan, 305 ha. koniferotatik gaur egungo 197 ha. tara iritsiz, eta hunada txiki batzuk salbu, hosto zabalekin birlandatu delarik azalera hori.

Koniferoetan, gehiengo nagusia Intsinis pinuak dauka zalantzarik gabe, eta hosto zabaletan berriz, erdi epeko (60-80 urte) landare motekin egin dira landaketa nagusienak, leku hoberenetan, bertako eta Japoniar gaztaina, norte haritza, intxaur, lizar edo tulipa arbola sartuz eta Sta. Barbara edo Ereñotzu bezelako mendi eskasetan, artea, urkia eta antzeko landareak nagusi direlarik.

Bestalde, Diputazioarenak diren Herri Onurako mendiak, hau da, Urdaburu (Gureola Scotti erositakoa) eta Etzala (Papelera Españolari erositakoa), bakoitza bere ezaugarri berezi batzuekin erosi zirenez gero, beren beharren arabera tratatuak izan dira. Hemen esan behar dugu, lehena ia dena soilik hartu zela eta ondorioz, landatzea izan dela helburu, Douglas izeia eta pagoarekin nahasian landatua dagoelarik. Bestea, aldiz, dena jantzia iritsi zaigu, pinu larizio, alertze eta Douglas izeiarekin batik bat, eta, ondorioz, egokitze lanak egin ditugu soilik, hau da, bakanketa eta kimaketa.

Idatzi hau bukatzeko, Herri Onurako mendi horietan egin diren eta normalean egiten ditugun lanen aipamen labur bat egin nahi nuke, jende arrunta mendira joaten denean ohartu dadin zer lan, eta zer lortu nahian egin diren lan ezberdin horiek.

LANDAKETA

– Lurra garbitze lanak Azaro inguruan hasten dira, egokiena Abenduan edo Hilbeltzean zuloak egin eta ondoren, Martxoa edo Apirila bitarte, landareak zuloetan kokatzen direlarik. Gaur egun, % 60 inguru, hosto zabalekin landatzen dugu H.O. mendietan, eta nere ustez, urteetan tendentzi horrek jarraitzen badu, gerora begira kalteak ekar ditzake. Hektareako (10.000 m²), 1.100 eta 2.500 landare tartean jartzen ditugu, "marko" ezberdinak erabiliz, hau da, eta adibide gisa, 3x3 m = 1.100 landare; 2,5x2,5 = 1.600 landare; 2x2 = 2.500 landare, eta abar.

GARBIKETA

– Ondorengo 4, 5, 6 edo 9-10 urteetan, zer landare mota sartu denaren arabera, udara iristean, landaketa hunadetan sortzen diren zakarrak moztu egin behar dira, sartu ditugun landare gazte haiek bizirik eta sasoi onean aurrera jarrai dezaten.

KIMAKETA-IÑAUSKETA

– Udaberriaren hasieran, oraindik neguari pixka bat helduz, **koniferoen** kimaketa edo ñausketa laneri heltzen zaio. Lan hauen zergatia zera da, gaur edo bihar, adar gutxi edo adar gabeko egur garbia eta kalitate handikoa lortzea. Beste ondorio batzuk ere ekartzen ditu lan horrek, adibidez, larrak eta beste zakar motak adarretan igotzea galarazi egiten da, suteran bat baldin bada, azpiko sua soilik izan dadin asko laguntzen da, basoan ibiltzeko samurtasun handia sortzen da eta beste abar luze bat ere aipa litezkeenak.

– Lehen aipaturiko garai berdintsuan, **hosto zabalari** ñausketa berezi edo erdaraz esaten den "poda de formación" egiten zaie. Lan hau nahiko arina izaten da eta berarekin lortu nahi dena zera da, buru-adarra gutxitu eta ahal den zuzenena goruntz jonaraztea, berez alboetako adarretan galtzen zaien indar hura kimu zuzen bakar batean bil dadin. Kimu hori aukeratu eta indartu ondoren, koniferoei bezalaxe kimaketa arrunta egiten zaie, lehenengo 5-6 metroak adarrik gabeko egur garbia izan dadin. Lan honekin, bere neurrian eginez gero, behintzat, lortzen dira aipaturikoaz gainera, landarearen hazkuntza azkarragoa, hau da, kimu luzeagoak ematea. Alderdi txarra zera da, neurritz kanpoko kimaketa egiten bazaio, gehiegi luzatzen dela kimu berria eta, ondorioz, samur hausten dela, aldi berean, alboetara nahi ez diren kimu indartsuak ere ematen dituztelarik, erdaraz "brotes chupones" izenarekin ezagutzen direnak

PROBETXAMENDUAK

– Behin landatu, garbitu, kimatu eta dena egin ondoren, mendiari etekina ateratzeko garaia ere heltzen da, eta behar bezelako hazkuntza izan

dezaten, gaztetatik (10-15 urte, zuhaitz motaren arabera) hasi behar da bakantze lanekin. Lan hauek, epe labur (35 urte), ertain (60-80 urte) edo luze (100-125 urte) motakoa izatearen arabera, 3-5 edo 6-10 aldiz egin beharko zaizkielarik.

Azkenik, eta beren epea betetzen dutenean, erabateko mozketak egiten dira koniferoetan eta hosto zabal sail txikietan, azken hauen sail handietan beste tratamendu berezi batzuk erabiltzen direlarik.

BASA BIDE EDO PISTAK

– Noski, lan hauek denak behar bezala burutu ahal izateko, eta Herri Onurako mendiei dago-kienez behintzat, behar ehineko plangintza baten ondoren, behar diren pista edo baso bideak eraiki edo konpontzen dira, behintzat, gutxieneko baldintza tekniko batzuk betetzen dituzten bideak suertatuz.



ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

ASCASIBAR ZUBIZARRETA, J. "Los montes de Guipuzcoa". 1.978

AUNOS GÓMEZ, A. "Bosquejo histórico de los montes de Utilidad Pública de Gipuzkoa". 1.992

EUSKO JAURLARITZA eta ALDUNDIAK. "E.K.A.ko Baso Inbentarioa". 1.986

GANUZA, Antonio. "Bosquejo forestal y Proyecto de organización del Servicio de Montes de la provincia de Guipuzcoa". 1.902

ICONA. "Primer Inventario Forestal Nacional. Provincia de Guipuzcoa". 1.971

LAFFITTE Y OBINETA, V. "La enfermedad del Pino marítimo en el Valle de Oyarzun". Memoria presentada a la Excm. Diputación de Guipúzcoa. 1.909

LAFFITTE Y OBINETA, V. "La repoblación Forestal en Guipúzcoa". 1.919.